



**EBAZPENA, 2007ko maiatzaren 9koa, Hezkuntza sailburuordearena, “Donostia” (Donostia-San Sebastián), “Jesús Guridi” (Vitoria-Gasteiz), eta “Juan Crisostomo de Arriaga” (Bilbao), Erdiko Mailako Musika Kontserbatorioen 2007-2008 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.**

“Donostia” (Donostia-San Sebastián), “Jesús Guridi” (Vitoria-Gasteiz), eta “Juan Crisostomo de Arriaga” (Bilbao), Erdiko Mailako Musika Kontserbatorioen 2007-2008 ikasturterako eskola-egutegia ondoko honi lotuko zaio:

1.- 2006-2007 ikasturtearen bukaera eta 2007-2008 ikasturtearen hasierarekin zerikusirik daukaten betebeharrak guztiei, (iraileko azterketak, ebaluaketak, Saileko bilerak, Klaustroak, Ikastetxearen Urteko Planaren prestakuntza eta abar), irailaren 3an hasiera emango diete Erdiko Mailako Musika Kontserbatorio guztiek.

2.- 2007-2008 ikasturteko klaseak ezingo dira 2007ko irailaren 17a baino beranduago hasi, ezta 2008ko ekainaren 20a baino beranduago bukatu ere.

Azken eskola-eguna eta ekainaren 30era bitarteko epea ikasturteko azken azterketa ezberdinak, ikasturtea berrikusi eta ebaluatzeko lanak, programaketak, Urteko Txostenaren prestakuntza eta beharrezko diren eginkizun administratibo guztiak egiteko erabiliko da.

Uztailean zehar Zuzendaritza Taldeko kideek, euren karguen propio diren zereginak beteko dituzte. Hilabete horretan eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste aldietan, (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

3.- Ikasturte barruan ikasleekin iharduteko egun kopurua, gutxienez, 175ekoa izango da, hauetako 160, gutxienez, klase-egunak izango direlarik.

2007-2008 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna eta dagokion irakasmilako zaindariaren jaieguna klase-eguntzat hartuko daitezke. Zaindariaren jaieguna, ez astelehenean ezta ostiralean ere ospatzen ez bada, egun horretatik hurbilen dagoen astelehen edo ostiralean ospatu ahal izango da.

Aipaturiko 160 klase-egunak ezingo dira ikasturteko azken azterketak, gradu, nota, sari, matrikula, sarbide zein aukeraketakoak egiteko erabili. Era berean, ezingo dira klaseak utzi ebaluaketa aldiak, gainditu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleentzako azterketak edota ebaluaketa-batzarrak edo klaustroak egiteko.



Irakaskuntza profesionaletako kurtsoetako bakoitzak bukatu ondoren, eta ebaluazio-prozesuaren ondorioz, irakasle guztiek osatutako ebaluazio-taldeak hartuko du ikasle bakoitza hurrengo kurtSORA igarotzeko erabakia.

Ikasleek egin ahal izango dute etengabeko ebaluazio-prozesuan gaintitu ez dituzten irakasgaien aparteko proba bat. Proba hau, irakasgai bakoitzaz arduratzen diren didaktika-departamentuek egin eta kalifikatuko dutena, ekainean egingo da, kontserbatorioetako eskola-egutegietan aurreikusitako 160 klase-egunek bukatu ondoren.

4.- Ezinbestekoz klase-egun gutxiago beteko balitz, berregokitu egin beharko da egutegia, 160 egunotara iritsi arte, beti ere langileen eskubideak betetzen direlarik.

Nahiz eta egunen batean ikasle batzu edo ikasle guztiak klasera ez joan, ikastetxeak klaseak ofizialki programaturiko ordutegiaren arabera eskaintzen jarraitu behar izango du.

Egutegia berregokitu behar denean hasieran egiteko erabili zen prozedura berbera jarraituko da.

Dagokion Aginte-organoak ez badu berregokitze proposamenik egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak egin dezan eskatuko dio. Erantzunik ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egutegia berregokitu eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

5.- a) Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Lan-Egutegian jai diren egunak eta dagokion herri eta lurraldeko zaindarien jaiegunak, jaitzak hartuko dira Eskola-egutegian.

b) Aipatutako zaindarien jaiegunak ez lanegun batean ospatu behar dituzten ikastetxeek, jai ospatzeko beste eguna hautatu ahal izango dute, dagokion egunaren ordean. Honek inola ere ez du esan nahi egun hauek klase-eguntzat hartu ahal direnik.

6.- Eguberritako oporraldiak 2007ko abenduaren 22tik 2008ko urtarrilaren 6rarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2008ko martxoaren 20tik 24ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

7.- Eskola egutegiaren proposamena tramitzatzeko 2006ko maiatzaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 8. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2006ko ekainaren 1eko EHAA).

Ikastetxeek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako espreski diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz egin behar dute proposamena, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dien argibideak jarraituz.



8.- Erabaki honek ezartzen duena nolabait aldatzeko, egoera berariazkoa kontutan hartuz (azterketa libreak, ikasturte, sari, karrera, gradu zein mailakoak, sartzeko probak eta abar), dagokion Hezkuntza-ordezkaritzak ontzat-eman egin beharko du. Zentruak aurrez eta espresuki eskabide arrazonatuaren bidez eskatuko dio proposatzen duen plangintza berria aurkeztuz.

9.- Ikastetxeren batek, finkatutako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, Hezkuntza Lurralde Ordezkariek egindakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 9a.

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izp: Pedro Maria Ochoa Bernales